



KOMUNIKATUA

Kazetariaren Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetariaren Elkarteak Eusko Jaurlaritzak Hala Bedi Irratiari 'Mozal Legea' aplikatuz ezarritako zigorra gaitzestu eta salatzen dute

Bilbo, 2017ko uztailak 28.- 2016ko maiatzaren 18an Hala Bediko bi kazetarik Iberdrola, Ertzaintzaren laguntzaz, Errekaleorren gauzatutako argi mozketaren jarraipena egin zuten gainontzeko hedabideek aukerarik izan ez zuten lekutik. Beranduago hurbildu ziren komunikabideek, ordea, ez zuten han gertatzen ari zenaren inguruko informaziorik behar bezala emateko aukerarik izan, ertzainek auzora sartzea eragotzi baitzieten.

Izan ere, Hala Beditik salatu bezala, ertzainetako bat komunikabide honetako kideengana hurbildu eta haien kontra kolpeka eta bultzakaka hasi zen sakelekoarekin grabatzen ari zirelako. Kolpe eta bultzakada horien ondorioz, Hala Bediko kazetarietako bati sakelekoa apurtu zioten.

Azpimarratu beharra dago Ertzaintzak kazetari bat 'Mozal Legea'rekin zigortzen duen lehenengo kasua dela hau. 602 €ko isuna, Ertzaintzaren esanetan, kordoi poliziala apurtzeagatik eta ertzainen aurka egiteagatik da. Hala Bediko kazetariaren zuten froga, apurtu zieten mugikorrarekin grabatutakoa zen eta ezin izan dituzte artxiiboak berreskuratu.

Hala Beditik salatzen dutenez, 2016ko ekainaren 22an, Eusko Jaurlaritzak "Mozal Legea ez aplikatzeko konpromisoa" hartu zuen. Ordutik, ordea, isunak, prozesu judizialak eta kazetarion aurkako erasoak izan dira.

Bestalde, Hala Bedi iragarri duenez, ez du isuna ordainduko eta epe ertainean prozesu juridiko bat abiatzeko asmoa du.

EKEk eta KEEtik berriro ere gogorarazten dugu 'Mozal legak' informazio eskubideari zuzenean erasotzen diola eta, beraz, komunikabideetako profesionalek garatzen dugun lanari ere, horregatik 'Mozal Legea' berehala kentzea eskatzen dugu.

Alda. San Mamés, 37 – 4º Dpto.6 - 48010 BILBAO - Tfno: 94 410 60 40 - www.periodistasvascos.com
email: asociacion@periodistasvascos.com/info@colegiovascodeperiodistas.com - <https://kazetariakavpeke.wordpress.com>

KAZETARIAK